



BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

(Donostia, 1980-1-6)

10
107

Karlsruhe

BERTSOLARI-TXAPELKETA NAGUSIA
(Donostia, 1980-I-6)

AUSPOA LIBURUTEGIA
(141)

AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa, Gipuzkoa
Teléfono: (943) 671282

BERTSOLARIAK

**BERTSOLARI-TXAPELKETA
NAGUSIA**

(Donostia, 1980-I-6)

**AUSPOA LIBURUTEGIA
1980**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa-Gipuzkoa)
Inprimatzaille: Elexpuru, Zamudio, Bizkaia
Konposizioa: Rali, Particular de Costa, 12-14, Bilbao
Depósito Legal: BI. 178-1980
ISBN: 84-7158-082-9
Enero-1980

ARKIBIDEA

	Págs.
Zenbait oar	9
Goizeko leen agurra	11
Binaka, zortziko aundian	17
Bakarka, gai banarekin	31
Binaka, amarreko txikian	41
Goizeko azken agurra	55
Arratsaldeko leen agurra	57
Binaka, zortziko txikian	61
Binaka, esne-saltzallearen doñuan	69
Bakarka, gai berarekin	77
Amuriza eta Enbeita	93
Sariak eta azken agurra	101
Doñuak	107

ZENBAIT OAR

Euskalerriko Bertsolari-Txapelketa nagusia berriz ospatu da. Orretarako, amasei bertsolari berezi ziran; leen mallakoak eta berak nai zutenak, iñor beartu gabe.

Lenengo leiaketa Arrasate'n egin zan, 1979-XII-23'an. Zortzi bertsolari goizean: Xanpun, Mitxelena, Koxme Lizaso, Arregi, Etxeberria, Narbaiza, Garmendia, Egileor. Beste zortzi arratsaldean: Azpillaga, Ezponda, Larrañaga, Gorrotxategi, Amuriza, Iraola, Ion Enbeita.

Urrena, Gernika'n jardun ziran, 1979-XII-30'an. Arrasate'n goizeko ziranak, emen arratsaldeko; eta arratsaldekoak, goizeko. Mitxelena'ri Arrasate'n ondo-eza egin eta, medikua-ren aginduz, etzuan Gernika'n kantatu. Aren lekua Zeberio'k bete zuan, bikoteak osatzearren, bañan Donosti'rako biderik gabe.

Epailleak zortzi bertsolari aukeratu zituzten: Etxeberria, Azpillaga, Enbeita, Amuriza, Garmendia, Larrañaga, Xanpun, Gorrotxategi. Zor-

tzi auek txapela jokatu zuten Donostia'n, 1980-I-6'an, goiz eta arratsalde. Amuriza gertatu zan txapeldun; Enbeita, bigarren.

Liburu onetan, Donostia'ko bertsoak agertzen ditugu, manetotonoz jaso eta papereratuta.

Bertsolari bakoitzari beren bertsoak erakutsi zaizkio, egindako kopia aurrean paratu eta manetofonoz entzun araziaz. Ez noski ezertxo ere aldatzeko; bai ordea oker papereratuak zuzentzeko. Bertsolariak ontzat emandako kopia eskeintzen degu, beraz.

Gure idazkerak fonetikari jarraitzen dio. Aozko poesiak orrela eskatzen baitu. Duda bat izan degu ordea: Amuriza'ren bertsoak, euskera batuan kantatuak baitira, nola idatzi? Zalan-tza orretatik berak atera gaitu. Lagunen bertsoak modu batera eta bereak bestera, etzuan ori ongi ikusten. Eta aldi onetarako amor eman du.

Bertsoen saietseko zenbakia doñuaren adierazgarri da. Doñuak, bakoitza bere zenbakiarekin, azken orrietan arkituko ditu irakurleak, Jose Antonio Arana'k solfeoz idatzita.

Oi danez, txapelketari ez dagozkionak ere esan zitzaizkion entzuleari mikrofonotik. Oiek danak alde batera uzten ditugu, bertsozaleari txapelketa soil-soillik ematearren.

Azaleko argazkia, Jesus Peman'ek egiña da.

A. Z.

GOIZEKO LEEN AGURRA

Joxe Mari Iriondo'k: Egun on. Bertsolari-Txapelketa nagusi onetako jaialdian bildu zera-ten guzioi, ongi etorri.

Oartuko ziñatenez, bertsolarien lan-ordena erabakitzeko, zozketa egin degu. Xanpun, Etxeberria, Gorrotxategi, Garmendia, Amuriza, Azpillaga, Larrañaga eta Enbeita, beraz. Ordena onetan egingo dute agurra. Eta gero, ofizioetan, bat eta zortzi ariko dira lelengo txandan; eta, zazpigarrenean, zazpi eta bi. Era orretan egingo degu, parejak aldatuz.

Esan bear da ere gaur emengo puntuazioa utsetik asten dala. Au da: aurreko bi igandetako puntuazioek ez dute baliorik gaur. Utsetik asten da bertsolari bakoitza, eta arratsaldean azkeneko saioraño egiten dituen puntu denak metatuko dira.

Bestaldetik, bein eta berriz gogoratu nai dizuet juradua zertan oñarrituko dan:

Bat: gaia. Gaiari zeatz eldu eta gañera sakondu eta aberastu.

Bi: izkuntza. Esateko moduaren edertasuna.

Iru: egitura. Saioaren sarrera, jarraipena eta bukaera.

Lau: Neurriak eta puntuak. Neurria, musikaren arabera. Puntuetan, potoez gañera, puntu aberatsak diran ala ez begiratuko du juraduak.

Dakizuten bezela, juradua osatzen dutenak, aurreko bi igandeetan ere juraduko izan diran amar jaun beroiek dira. Nere eskubiko aldean or daude Aranalde, Artola, Etxezarreta, Aranburu, Irigoien, Itzaina, Lekuona, Muniategi, San Martin eta Zabala.

Eta txapelketa onetarako Euskaltzaindiak juraduko aukeratu zituen momentutik, kontentutu ala deskontentutak alde batera, guk, bertsolariak epaitzekoan, oiek esaten dutenari kaso egin bear diogu, nai ta ez. Uste degu zuetako geienokin irizkide izango dirala; iritzi berdintsuko edo berdiñeko bearbada, txapelketa guztietan, sariketa guztietan gertatzen diran salbuespenak aparte uzten baldin baditugu.

Gaurko jaialdi onetan bagenekien jendearen erantzun ona izango genuela, eta guztioi esker milla.

Bestaldetik, emen ditugu gure artean Euskaltzaindiko ordezkariak, Kontsellaritzakoak, euskal Diputazioetakoak, Bilbo, Donostia, Arrasate eta Gernika'ko Udaletxetakoak. Eta emen degu beste ainbat jende bertsozale eta euskaltzale. Emen ditugu ere gure artean, Uztapide

ikusi det; Mattin ez det ikusi, bañan etorri dala esan didate (1). Eta emen ditugu ere Arjentina'tik etorri diran bi andere: bata, Pedro Maria Otaño'ren alaba; eta bestea, bere alaba. Gero, arratsaldean bearbada, arpegiz ezagutzeko egokiera izango dezute.

Eta onenbestez, giro jator eta bikain onetan, txapelketari asiera emango diogu, agur baña egiñez. Bañan lelengo agur auek juraduak ez ditu kontuan artuko, noski. Agurrak ez dira kontuan artuko. Eta zozketak ordena auxe eman du: Xanpun lelengo gaur.

1 *Xan.:* Donostia, zu izar harturik
ipar aldetik egorat,
zuzen-zuzena ekarri nauzu
anai-arreben ondorat;
ez dut urrerik eskainiko nik
bainan besarkada on bat,
ta hari esker egun sartzen naiz
senidetasun gozorat,
iduritzen zait naizela haur bat
jina amaren altzorat.

Iri.: Patxi Etxeberria.

2 *Etx.:* Egun ontako amets luzeak
egin izan nituen len,
ez nuen bera itxaro baña
gaur aurkitutzen naiz emen;

(1) Mattin etzan etorri, gaixorik zegoen eta.

egun on anai-arreba denai
besterik esan baño len,
egun gozo bat ospa dezagun
Donostia'ren magalen.

Iri.: Jose Luis Gorrotxategi.

- 3** *Gor.:* Lendabiziko agur ta erdi
Balda'tik Donostia'ri,
eta ondoren besarkada bat
Euskalerra guztiari;
ta bereziki txapeldun degun
Uztapide aundiari,
Arjentina'tik Donostia'ra
etorri dan izarrari,
ementxe bertso-entzule dugun
Otaño'ren alabari.

Iri.: Txomin Garmendia.

- 4** *Gar.:* Anai-arrebak, besarkada bat
eskeñitzen det aurrena,
gu zortzi lagun probatu asmoz
bildu gera alkarrena;
grña au da odolean
euskaldunak dakarrena,
egun eder bat izan dedilla
au da gauzik bearrena.

Iri.: Xabier Amuriza.

- 5** *Amu.:* Ainbeste jende biltzeko emen
bada zerbaiten afana,

goizean asi ta gauera arte
badugu gaur zer emana.
Ez al zen obe izango jantzi
bakoitzari txapel bana?
Baña bakarra jarri dute ta
ala gatoz zuengana,
ondo eztakit baña biotzez
izango da gure lana.

Iri.: Ion Azpillaga.

- 5** *Azp.:* Ongi etorri eta egun on
naizen modu apalean,
bertsolariak zuek gozaten
bagatoz egiñalean;
ainbeste milla bildu zerate
gaur Balda'ren magalean,
erri-irradi guziak berriz
kantari daude kalean,
gure izkuntza entzun dezaten
Euskalerra zabalean.

Iri.: Ondoren, Anjel Larrañaga.

- 3** *Lar.:* Bildu zeraten guziori agur,
berdin Euskadi osua,
txapelketaren barruan gaur da
gure azkenengo pausua;
dedan guzia eskeñitzeko
nator borondatetsua,
Balda guzia jendez beterik
auxen da paradisua,

gauza bakarra opa dizuet:
egun bat zoriontsua.

Iri.: Ion Enbeita.

- 5** *Enb.:* Ikaratzeko gauza ez al da
emen bertsotan astea?
Millaka anai begira adi
aurrez-aurre ikustea;
geu ezjakiñak ta nai dozue
guregandik ikastea,
kostako jaku gudan dozuen
konfiantzari eustea,
gudan dagona egingo dogu,
zuengan dago bestea.

Iri.: Euskalerriko Bertsolari-Txapelketa au,
nai zuten lelen mallako bertsolari guzientzako,
Euskaltzaindiak antolatu zuen, Kultur-Kontsella-
ritza, euskal Diputazioak eta zenbait Aurrezki
Diru-Etxeren babesez.

BINAKA
ZORTZIKO AUNDIAN

Iri.: Orain bi-bitarako saioa astera goaz. Saio onetan, Xanpun eta Enbeita. Eta saioa onela banatua dago: lelengo, binaka. Au da: parejaka eta zortziko aundian, iruna bertso.

Xanpun, zu fabrika batetako nagusia edo ugazaba zera. Eta gaur goizean or etorri zaizu Enbeita, emezortzi urteko gazte au, lan-eske.

6 *Xan.:* Gazte maite hau gaur etorri zait neri lan-galdez etxe(r)a,
kaltekorra da zinez neretzat gazte on baten galtzea;
bainan hala ere ausartatzen naiz hau berari eskatzea:
egi-egitan lan-gogo onez hunat etorri al zea?

Enb.: Bizi bearrak ala jarrita emen nator zuregana,

konprenitzen det gaur neregatik
dadukazun duda dana;
zintzo nator ta eman eidazu,
jauna, arren neri lana,
jornala barik bakarrik nai det
nere etxearen jana.

Xan.: Nagusi batek kezkek baditu
gaia azaltzen denean,
egun ez nuke naski nai egon
langile hoién menean;
emanen dautzut ofizioko
lagun bat aldamenean,
bertzeik ez bada an bai bederen
ikas dezazun lanean.

Enb.: Len ere zutaz nik gauza onak
aditu nituen baiña,
enuen uste aurkitutzea
orren zintzo ta apaiña;
egingo dizut nik nere lana
neri eskatua aiña,
ta zuk neretzat bakarrik eman
eiten detanan ordaiña.

Xan.: Beraz, gaztea, sartu zaite gaur
nagusi honen gerizan,
ta, dakizuna, beharko duzu
naski lanean arizan;
ni portatuko naiz ta zuzen da
nagusi on baten gisan,

zure partetik, gazte maitea,
zu araberako izan.

Enb.: Dударик bada nik gura neuke
ateratzea bertatik,
enaiz etorri ni bizitzeko
ugazabaren lepotik;
kontzentzi bat det ta ez dit ixten
jaten besteren ogitik,
lana emaidazu, bizi nai det ta
nik neronen izerditik.

Iri.: Biña puntu orain bi bertsolariet. Do-
ñaak aldatuz ibilli gera aurrekoetan; baña, Usur-
bil'ko bertsozale batzuen eskariz eta izenez, do-
ña berdiñean jarriko ditugu puntuak, eta be-
rak eskatu duten doñuan gañera. Xanpun:

7 *Iri.:* Festarik festa zabiltz
sasoi ederrian...

Xan.: Bainan hau ere egiten
bere neurrian;
ta balia gaitezen
hala beharrian,
aski goiz sartuko gira
estatu txarrian.

Iri.: Bertsozalez beteta
daukagu gaur Balda...

Enb.: Gustora igo dute
onerako malda;

konforme ez bada iñor
jendeari galda,
bertsoa beti izan da
euskeraren salda.

Iri.: Zer ekarri dizute
zuri Erregeak?

Xan.: Etorri diren puxka hek
ziren gaur meheak;
ta hauxe jakin behar du
entzule jendeak:
ez ditut errespetatzen
jaun hoi en legeak.

Iri.: Askoren gaitza degu
nahi eta ezin...

Enb.: Ainbat lan era ortan
Euskadin da egin;
naiz-ta erria jasotzen
guk betik alegin,
goikoak indarrakin
beti du desegin.

* * *

Iri.: Eta orain ondoren Etxeberria eta Larrañaga, mesedez. Zu, Etxeberria, senarra zera. Zu, Larrañaga, emaztea. Apartatzera, dibortziatzera zoazte eta zuen aurrak galdetu dizue: Eta ni? Iruna bertso zortziko nagusian, txandatur, Etxeberria asita.

8 *Etx.:* Ai, emaztea, etorri zaigu
orain une garrantzirik,
bizi nai degu gaurtik aurrera
batek bestea utzirik;
aurrak galdera egiten dute
ontaraño iritxirik,
orain burura etorri zait nei:
eztegu kontzientzirik.

Lar.: Diburtzioak sortuko ditu
orrenbeste izkizun-da,
bañan al bada aurra nik utzi
nai det zerbait erantzunda.
«Ta orain nik zer?» denboralean
leno galdezka jardun da;
ôin aurrak sufritu bear al du,
bate errurik etzun-da?

Etx.: Aita ta ama gertatzen gera
okasio-arazoan,
nik derizkiot bizi gindezken
erabat egun gozoan;
amak eztu nai zuekin ezer
mundurako pausoan,
ez ikaratu, biziko zera
goxo aitaren besoan.

Lar.: Ez dezu ondo gaurkoz dantzatu,
aita, zeorren mingaña,
amak umea maitatutzen du
sarri aita batek aña;

zuregandikan apartatzeko
gogua badaukat baña,
nik ere errez jaso niteke
nere semetxo apaña.

Etx.: Ama gaixtoak jarraitu nai du
dotoreziyaz luzitzen,
orregatikan senar zintzo au
eztu ongi ikusitzen;
arro oitu da gaztetan eta
eztaki umil bizitzen,
nik alegiñak egingo ditut
aurtxoak ondo ezitzen.

Lar.: Beti bezela nere senarrak
arrazoi latza eman du,
eztu esaten mozkortu eta
etortzen zala berandu;
baña juzgauak umiak zeñek
bear ditun esango du,
maitetasuna galdu da eta
okerra orrek izan du.

7 *Iri.:* Onek ez du autsiko
lanian ezurrik...

Etx.: Ortantxe ikasi nun
dakitan apurrik;
nik lana egiteko
ez daukat bildurrik,
langillia naiz eta
ez esan gezurrik.

Iri.: Abendua joan zan,
orain Urtarrilla...

Lar.: Besteak bezelaxe
urtearen illa;
or aurrera juango naiz
gauz onaren billa,
danontzat subertekoa
gertatu dedilla.

Iri.: Begiak altxa itzazu,
zertarako lotsa?

Etx.: Alare erriakin
dadukat biotza;
berarentzat izan nun
nik nere jaiotza,
barkatu baldin banaiz
bertsolari motza.

Iri.: Artu bear dituzu
asto beltzarenak...

Etx.: Ez dit on aundirik egin
galdera orrenak;
balorea badauka
nigan datorrenak,
arek e emango ditu
gero ondorenak.

* * *

Iri.: Orain ondoren beste biko bat: Gorro
txategi eta Azpillaga.

Auen ofizioak onelaxe dio: Biok lagunak ze-

rate, bi nexka. Zu, Gorrotxategi, oso nexka polita. Azpillaga, zu oso neska itxusia. Nexka polita asiko da eta itxusiak segi, iruna bertso zortziko nagusian, zortziko aundian.

9 *Gor.:* Biok gu auzo batean jaio
ta inguruan aziak,
baña edertasunez ez gerade
era berdiñez jantziak;
ni ederra ta ai zenbat malko
ditun neska itxusiak,
zaude zu lasai, iñork ez ditu
emen zorion guziak.

Azp.: Nere lagunak batek dituen
poz danak dauzka artuta,
espilluaren aurrean jarri
ta dago lilluratuta;
sasoia ere alakua du,
dana dago barkatuta,
baña mutillak nigana datoz
gorputzai begiratuta.

Gor.: Neska itxusiak esan didana
nik izango det goguan,
mutur zorrotza ta itxusia
baño mutillak onduan;
eskote aundi ta gona motzak
neskatxa merken moduan,
itxusi dana edertutzeko
zertxobait bear zenduan.

Azp.: Gorputzez neska ederra nago
naiz-ta arpegiz itxusi,
gerorako're ni ondo nago
dote eder eta guzi;
mutil gazteak, orren atzetik
arren etzaitezte asi,
arrautzak nola brijitzen diran
oraindik ez du ikasi.

Gor.: Arrautz-kontua nere lagunai
belaxe bururatuta,
biar ô etzi ezkondu bear
mutil jator bat artuta;
ta beste ortan asi bêt baden
oie txurian sartuta,
ein bêtko'ezute trapu batekin
mutur ori tapatuta.

Azp.: Pollitasunak bentaja danak
ez ditu izaten lurrian,
eta ni berriz ikasia naiz
ain sukalde ederrian;
orrek eguna pasatutzen du
espilluaren aurrian,
artzen duenak bazkari onik
ez du izango urrian.

7 *Iri.:* Ari beltza ugari
soñeko txurian...

Gor.: Iñoiz gertatu izan da
gauz ori gurian;

baño preparatzen bada
modu dotorian,
txoratzeko arriskuz
beraren aurrian.

Iri.: Ollo bat falta zaigu
ollotegiatik...

Azp.: Ori etzendun esango
beñepein nigatik;
nolako gizona nagon
begira bertatik,
sekulan ez det izan
olluaren faltik.

Iri.: Zazpi neskati edo
aukera-maukeran...

Gor.: Ortik pentsatu zuek
nolakuak geran;
Azpillaga, jarri bear
neskatako eran,
orain epoka dek eta
ia saiatzen geran.

Iri.: Puzkarra zala uste
ta putza izaki...

Azp.: Bestiari ematen
badakit aitzaki;
botatzen danian azkar
usaia da jaiki,
botatzen Iriondo'k e
neuk bezela daki.

* * *

Iri.: Orain ondoren Amuriza eta Garmendia. Zortziko aundian eta iruna bertso. Zu, Garmendia, kaiolan zauden txoria zera. Zu, Amuriza, libre bizi zeralarik, Garmendia'ren kaiolan pausatzen zera. Elkarrizketa asi.

10*Gar.:* Mendi batean bestek bezela
ni're jaio ta aziya,
bañan etsaien atzaparretan
egun batean jausiya;
ta geroztikan ondo dakit nik
kaiolak duen graziya,
nere laguna or aske dago,
auxen da diferentziya.

Amu.: Diferentzia ori izanak
ematen dizu gaur sua,
ni libre nago baña naiz zure
anaia edo gusua;
txori bat preso kaiolan eta
ni bakearen usua,
biotz-biotzez eskaintzen dizut
libertadeko musua.

Gar.: Ara nik nunbait ez nun merezi
askatasunan grazirik,
kaiola ontako ate guziak
aspaldi dauzkat itxirik;
nere laguna mendirik mendi
luma politak jantzirik,
bañan kantuan, egia esan,
ez degu diferentzirik.

Amu.: Kantuak nola diferentziak
litzake doñuan jaso?
Kaiola bat da tartean baña
amets txar bat da akaso;
biok batera joan gintezke,
laguntxo, basorik baso,
edo bestela nik ere nai dut
zurekin gelditu preso.

Gar.: Alaitasunen kantuz alare
jario nere mokotik,
egia esan, neure etsaiak
gorrotatuaz gogotik;
katez lotuta gertatutzen naiz
gerritik eta lepotik,
ta zu, laguna, ni ertetzeko
lana egin zazu kanpotik.

Amu.: Eskatzen duzun lan òri ezin
uka nezake iñola,
pentsa ala ere gure artean
zerbait geio badagola;
askatasuna nik kantatzen dut
ta zuk sufritzen kaiola,
bion artean osatzen dugu
Euskalerriko odola.

7 *Iri.:* Astoa saldu eta
astoa erosi...

Gar.: Mundu kaxkar onetan
ainbeste malezi;

bizkorrena zein dagon
gaur errex berezi,
bajua ezin noski
gaur altxatu-azi.

Iri.: Nun da nere gogoa
an nere zangoa...

Amu.: Esan nai al duzu ni
naizela mandoa?
Amak sortu ninduen
ni ere olangoa,
munduan ibiltzeko
mutil fandangoa.

Iri.: Gaur egungo gazteak
auntzak lez bizarra...

Gar.: Gaur e gazte asko dago
erriko izarra;
odola beroa ta
besotan indarra,
egun askotan bada
gazte oien bearra.

Iri.: Altzak ez du biotzik,
zuk ere ez lotsik...

Amu.: Ez ote duzu, lagun,
ipurdiko otzik?
Ez zazu nere kontra
zorroztu kokotzik,
zu berdiña zera ta
gelditzen naiz pozik.

BAKARKA GAI BANAREKIN

iri.: Orain bakarka etorriko dira bertsolariak eta gai desberdiñei erantzunez.

Xanpun lelengo. Iru bertso, zeuk nai duzun neurrian eta doñuan. Zuk, sarrerarik gabe or kanpoan gelditu dan bertsozalea duzu gogoan.

11 *Xan.:* Jaun Iriondo, kezketan nago
benetan entzun ondoan,
izan ditake zure esana
daukatela nik gogoan:
nola zonbeiten denbora egun
ohar gabean badoan,
sarrera eskas izan ditake
euskaltzale bat kanpoan.

Ta hiru bertsu nauzki eskatu
jaun horrek gaur harengatik,
kanpoan egon ez du merezi,
esanen dautzut goratik;

ate-zaintzale horiek, otoi,
apur bat kendu trabatik,
edo bertzenaz pagatuko dut
haren gastua zarpatik.

Balio ote du bertsu huntan
geiagorik esatea?
Hori gertatuz ez litake gaur
euskotar bat izatea;
ez balin badu sarrerik eta
harentzat zer den kaltea,
urrikaldu ta bederen hari
zabaldu laster atea.

* * *

Iri.: Orain ondoren Etxeberria Patxi. Iru bertso, nai dituan doñu eta neurrietan: Emaigu-zu eguneroko lana.

12 *Etx.:* Ara, anaiak, ara, arrebak,
berriro sortu zaidana,
auxen da emen nere biotzai
orain lertzen zaion dana;
ezkera ondo bizi,
au ezkendun merezi,
aizu, Euskadi'ko Ama:
biotzez arren eskatzen dizut
eman euneroko lana.

13 Askok dio Euskadi
degula nagiya,

nik gogor esango det:
Oi ezta egiya;
gogoz bota nai degu
geuren izerdiya,
lana egin da irabazi
jateko ogiya,
ori da gizonentzat
bire bat garbiya.

14 Berriro nator zugana,
Ama Euskadi laztana;
lan gabe dagon zure semeai
eman akiozu lana,
zuk badakizu zure semeak
lanaren gose gerana.

* * *

Iri.: Jose Luis Gorrotxategi orain ondoren.
Iru bertso, nai dituan doñu eta neurrian: Ire
jaiotetxea sutan zegok.

3 *Gor.:* Ni deadarka esnatu naute
gau erdi ontan auzuak,
izan e gurean etziraden
alako une gozuak;
pake santuan bizi giñan da
artu gaitu erasuak,
an ikasi nun euskéraz eta
lenbiziko errezuak,
ainbeste maite nuan kabia
azkenik erre du suak.

Aita ta ama antxen giñan gu
eta gañera bi anai,
familiako pake goxoan
bizitzen giñan nolana;
etxeko orma ta abe zarrak
dirade danak orain sugai,
baserri ura maitatzen det nik,
kalean ez egon nere zai,
berri-berria bertan eingo det,
beste lekurik ez det nai.

Ez dakit sua biotz gabea
nolatan izan litekian,
ez gendun besterikan eskatzen,
antxe bizi nai pakian;
orain ez dago beste gauzarik
ango suan eta kian;
iraungo al det iltzen ez banaiz
biotzeko atakian,
azken arnasa eman nai nuke
ni jaio nintzan tokian.

* * *

Iri.: Txomin Garmendia'rentzat gaia: Lasti-
ma izango dek iri ematia ainbeste kostatako ala-
ba maitia.

15 *Gar.:* Nere sentimentuak
banoa esatia,
enun gaur asko uste
onela izatia;

gaur guraso batek:
«Iri ematia,
ainbeste kostatako
alaba maitia!»

Nik e aitortutzen det
gaur zarra naizala,
baña ezkondu nai nuke
nola edo ala;
amorioz biotza
ain daukat zabala:
ni baña obegon bat
billatu dezala.

Gaurko modara noski
ezin neike jantzi,
txapelik leku askotan
ezin det erantzi;
fortuna aldetik berriz
det alderdi gutxi,
ta itzegingo degu
biar edo etzi.

* * *

Iri.: Xabier Amuriza orain ondoren. Iru bertso, nai duan doñu eta neurrian: Biotzean mindut.

16 *Amu.:* Sentimentua sartu zitzaidan
biotzeraño umetan,

geroztik ainbat gauza mingarri
ikusi mundu onetan;
Euskalerriaz batera nago
biotz barneko penetan:
anaiak alkar artu eziñik,
etsaiak su eta ketan,
esan dudana gezurra bada
urka nazazue bertan.

Sentimentua nola dugun guk
aize otzeko orbela,
mingañetikan biotz barnera
doa erriko kordela;
esperantza dut zerbait oberik
bearbada datorrela,
mundu ontara sortu zen bati
bizitzea ere zor dela,
biur bekizkit esteak arri
ori ez bada orrela.

Zer kolorezko airea ote
da gizonaren samiña?
Ni eta zuen barrena ortan
izan liteke berdiña;
zoriontsuak izan gintezke
erri libre bat bagiña,
baña au ezta orrela eta
orrek sortzen dit sumiña,
argatik Balda ontan uzten dut
nire biotzeko miña.

* * *

Iri.: Ion Azpillaga orain. Iru bertso botatzeko gaia: «Nik ez det aundia egin nai» esan dizu zure aurrak. Iru bertso doñu eta neurri librean.

5 *Azp.:* Nere aurraren esaerakin
esna dedilla jentea,
gaurko goizean zer gusta zautan
umearen esatea;
aren begiak pozikan daude,
biotza berdin betea,
ainbat jostallu gaurko goizean,
aita ere zuan maitea,
izan ere zein gauz ederra dan
beti ume izatea.

Aur txikiaren esakera au
ez da guretzat kaltian,
oraindik gero ikustekoa
dauka oso apartian;
zer gozamina gaurko goizean
sortu zan etxe maitian,
bazter guztiak nabaitzen zitun
jostallu ederrez betian,
nik esan diot: «Jolastu zaite
aurra zeran bitartian.»

Orlako itzak izaten dira
maitekor da biotzeko,
ia aski zan agoa itxita
itzik gabe gelditzeko;

baña zerbaitxo asmatu bear
aurra lasai gelditzeko:
«Mundu ontara etorri gera
luzaroan bizitzeko,
izan zaitela aundia azi
eta zartuta iltzeko».

* * *

Iri.: Anjel Larrañaga orain. Iru bertso doñu
eta neurri librean: Erriko kanpaiari mia ostu
diote.

17 *Lar.:* Zerbait kontatzen asi nai nuke
eman diraten berriya,
ori entzunda pentsamentuan
nola naguen jarriya;
erriko kanpaiari kendu diote
barruan zeraman miya,
orain nola jo il-kanpaia ta
goizean dan agoniya?

Alde batera izan zindeke
negar-eragingarriya,
baña norbait iltzen zan garaian
enteratzen zan erriya;
ta orain ezin enteraturik
dator komeri gorriya,
nunbaitetikan erosi eta
jarriko diot berriya.

Ez nuan uste gai auetara
ordu auetan biltzerik,

baño orregaitik itxaropena
sekula ez det nai galtzerik;
artu duanak pasauko zuen
estusun latzeko trantzerik,
nunbait ura kenduta etzuan naiko
munduan iñor iltzerik.

* * *

Iri.: Onelaxe dio gai onek, iru bertso doñu
eta neurri librean: Arrantzaldia egin eta txalupa
portura eldu danean, Enbeita, zure senarra fal-
ta da.

18 *Enb.:* Gogoratzen naiz ezteguetan
genduen maitasun-garra,
geroztik bizi bear genuen
eta lanaren bearra;
ontzia arraiz betea dator
falta nai detan bakarra,
bizi izateko laguntzat dedan
biotz erdiko senarra.

Zu ezin zera galdua izan,
zoazte nigandik, miñak,
zu ta ni gera mundu onetan
maitatutzeko egiñak;
baña alperrik, egia da ta,
ez-siñiste alegiñak,
nere senarra eldu ez bada
zertako ditut arraiñak?

Zoriontsuak benetan giñan
gu alkarren inguruan,
baña derrigor pentsatu bear
janaritako diruan;
nik bear nuen eta zertako,
Jauna, daustazu eruan?
Zure naia zan, ala dedilla,
bildu gaitzazu zeruan.

BINAKA
AMARREKO TXIKIAN

Iri.: Orain ondoren parejak aldatu egingo ditugu, beste saio bat egiteko. Eta ofizioetan doa urrengo saioa ere, baña amarreko txikian. Bearbada, neurri onetan beste zenbait neurritan añako doñu-aukerarik ez da izango.

Eta etorri Larrañaga eta Xanpun. Oraingoan Larrañaga asten. Iruna bertso. Biok atzo gaez neska berarekin dantzan egin dezute.

19 *Lar.:* Xanpun eta ni biok
ibiliak bero,
danak esan bearra
daukat onuzkero;
ezkonduak gu biak,
ez gaude soltero,
norbaitek igual au
etzuen espero,
geio're egin nun nik
dantzatu ta gero.

Xan.: Galde bortitza egin
derautak ik arin,
nik ere dantzatua
diat hantxet berdin;
tontokeritako guk
gaur sobera adin,
bañan dantzan hasi ta
hartzen da atsegin,
beso-txainda're ez da
kalte noizez behin.

Lar.: Dantzatzeko ez giñan
egon gu zalantzan,
eraretik beteta
gu erdi balantzan;
umorea bagendun
dantzatzeko plazan,
aldrebes edo ongi
an jardunak dantzan,
bañan ondorengoa
ederragua zan.

Xan.: Txarkeria gogoan
jarri zira teman,
nik nai nuke auzia
bururat ereman;
zer komedi gaixtoak
ukan ditudan han,
harek eskuin behar ta
nik ezker nahian,
lanak zauden puntuak
zuzen ezin eman.

Lar.: Nola ibili giñan
dadukat goguan,
da argatikan nago
ni esan asmuan:
zu bezela umorea
nik ere banuan,
dantzatzera bakarrik
Xanpun etzan juan,
nêkin ein zun tratua
ta akabo orduan.

Xan.: Bera ibilia da
han estekatua,
neskari lotu eta ez-
in espektua;
aski hurbil ziñela
ezin ukatua,
ixtant guzian zuen
neri trukatua,
ez Xanpunen gain bota
zure bekatua.

Iri.: Lau oñak orain, bertsoa osatzeko, zor-
tziko txikian: geza, eza, meza, beza.

7 *Lar.:* Edandakuan memoriz
gertatzen naiz geza,
bañan okerrago da
umorerik eza;
gaur goizean eleizan
eman det nik meza,

atzoko utsegitea
Jaunak barka beza.

Iri.: Xanpumentzat lau oñak: parranda, emanda, edanda, txanda.

20 *Xan.:* Atzo egina dugu
guk naiko parranda,
baxo erdi hoitatik
sobera edanda;
gañerat, aitortzen dut,
hau bertzek emanda;
noiz etorriko al da,
bai, guretzat txainda.

* * *

Iri.: Orain ondoren Azpillaga eta Etxeberria. Amarreko txikian iruna bertso: i, Azpillaga, gal-tza berriak egin nai eta Etxeberria sastrearengana joan aiz.

13 *Azp.:* Etxeberria'k ditu
sastre-lanteriak,
baña beti ez ditu
betetzen begiak;
oker egindakuak
baditu erdiak,
len egin zituzunak
ez ain dotoriak,
ia egiten dituzun
len baiño obiak.

Etx.: Neri gertatzen zaizkit
aldrebeskeriyak,
jakin beaituzute
gaur emen egiyak;
sastre batentzat ere
auek komeriyak,
lan txarrak ekartze'itu
gizon aundigiyak,
nik ezin ondo artu
oni negurriyak.

Azp.: Sastre bakarra dala
dago ikusia,
lan orretan errian
bera nagusia;
egiten duen lana
dana itxusia,
ainka bata motza ta
bestia luzia,
ta gero kobratzen du
nai duen guzia.

Etx.: Oni trajia egiten
or nitzaden asi,
bañan ortako ainbat
ez nuen ikasi;
baldarra ta aundiya
ipurdi ta guzi,
gañera jarritzen da
benetan itxusi,
kobratzia besterik
ez dezu merezi.

Azp.: Ez nizuke galdu nai
len daukazun sonik,
baña jantzi txarrakin
ez dezake bromik;
gaizki eginda ez du
kobrauko txanponik,
onek josten ez daki
ez galtza ez gonik,
sastre txarrantzako
ez da gorputz onik.

Etx.: Lotsagabekeria
etzaude motela,
esan nai dezu kulpa
bakarrik detela;
nik garbi esango det
biar dan bezela,
propagandarik ez det
egingo bestela,
nik ez daukat etxian
zutzat ainbat tela.

Iri.: Azpillaga'rentzat orain oñak, zortziko
txikian bertsoa osa dezan: agur, labur, egur, la-
pur.

7 *Azp.:* Agintariak ez du
bear ainbat egur,
nere kotxien denbora
gertatu da labur;
atzo gauean baziran
iru edo lau lapur,

nere kotxe berriak
or egin du agur.

Iri.: Etxeberriari lau oñak: zital, zabal, magal, egal.

21 *Etx.:* Euskadi, garai baten
izan ziñan zabal,
bañan gaur badituzu
ainbat seme zital;
ala ere bagera
gizen edo argal,
Ama, izan ezazu
gutzat aña magal.

* * *

Iri.: Amuriza eta Gorrotxategi orain. Oraingo bertsoak ere amarreko txikian doaz. Amuriza, ik ire autoa Donostia'ko kale batean aparkatu dek. Eta or ikusten dek Gorrotxategi, grua-zalea, or datorrela ire autoa artu ta eramatera. Iruna bertso, Amuriza asita.

19 *Amu.:* Klean tokirik ez
ta nenbillen estu,
lekutxu bat ala ere
or bazegon juxtu;
grua-zalea orra
ondatzeko prestu,
nere autoa artu
duzu zure esku,

zu gorroto zaitunak
pekaturik eztu.

Gor.: Donosti'ra bixita
etzan lelengua,
kuidado geiagokin
izan urrengua;
or bazegoan nunai
orrentzat lekua,
baño gaizki zegon da
etorri da grua,
azpi-azpitik lotu
ta berakin nua.

Amu.: Lekurik eztagola
denek dakitena;
ta orra grua nunai
ta noiznai irtena;
kotxea eraman eta
artu bear trena,
nola izan zintezke
ain asta-kirtena?
Zu egin zintuenak
ematen dit pena.

Gor.: Leku gutxi daukagu
Donosti estuan,
ta kalean pasatzen
au justu-justuan;
gero utzi du berak
nai zuen lekuan,

karneta're ez dakit
nun atera zuan,
urrena Donosti'ra
etorri astuan.

Amu.: Bakoitzak emen egin
bear du garraisi,
kotxea galdu ta ez naiz
joango igesi;
galdetuko diegu
nai ainbat juezi,
nere kotxeak etzun
gaur ori merezi,
astorik bear bada
naiko asto aiz i.

Gor.: Kotxe bat mallatu du,
bestea igurtzi,
bozina joka gero
oiu ta irrintzi;
alako baten orra
grua da iritxi,
azpitikan lotzera
nagusia jetxi,
pagatu zak multa ta
berriketa gutxi.

Iri.: Amuriza'ri lau oñak, zortziko txikian
bertsoa egiteko: noiz, goiz, iñoiz, arrazoiz.

22 *Amu.:* Euskalerrian libre
izan giñan iñoiz,

orain esklabo gaude
indarren arrazoiz;
berriz libre gerade
baña ez dakit noiz,
beintzat ezta izango
zuek nai bezain goiz.

Iri.: Gorrotxategi'ri lau oñak: fedea, legea,
atea, katea.

7 *Gor.:* Naiz nunaitik eduki
soka ta katea,
alare ez degu galdu
oraindik fedea;
Jauna, betetzen dunari
Zuk dezun legea,
iltzean iriki iozu
zeruko atea.

* * *

Iri.: Eta, azkenik, gaur goizeko saio onetan,
Enbeita eta Garmendia. Auen gaia auxe da: En-
beita, estu eta larri komunera oa, eta komuna
okupatua dago. Garmendia barruan lasai zegok.

19 *Enb.:* Ez det sarri igaro
ainbeste une txar,
banket batean jaten
ein det naiko indar;
baña bete ezkerro
utzitzea dakar,

eta larritasunez
berau egin bear,
bukatua badezu
irten zaite azkar.

Gar.: Gure gertakizunaz
konturau zerate,
maiatik altxa eta
etorri naiz laixte;
biok gertatutzea
arritzeko ote?
Ate joka artu du
Enbeita'k parte,
lasai egondu ari
ni libratu arte.

Enb.: Utzi zak gerorako
berbaren mitiña,
eta azkar bukatu
zeure zeregiña;
ia egiña daukat
tripetako miña,
ez dakit gogorra dan
ala dan ziriña,
baña kentzeko badet
Kristoren premiña.

Gar.: Atea zabaldua
ni exerita jarri,
barrena libratu arte
ni nago lasari;

ta zuk baldin badezu
ainbeste mirari,
arkitutzen bazera
estu eta larri,
ondoko baratzen
azkar jua bedi.

Enb.: Ez bialdu galazo
ein duten partera,
enaiz broman etorri
gaur zure atera;
baizik premiña detan
zerbait egitera,
lotsa kendu ezazu,
ez dezu kaltera,
eta egingo degu
guk biok batera.

Gar.: Komona au nik ere
artu det gogotzat,
ta zertan egongo naiz
aitortzeko lotsak?
Barrundik entzute'itut
onen puzkar-otsak,
bañan egia esan
emen ditut pozak,
ezin baldin b'aiz egon
baratzen bota zak.

Iri.: Lau oñak orain Ion Enbeita'ri, zortziko
txikian bertsoa egiteko: zozo, gozo, oso, auzo.

23 *Enb.:* Gaur badabil kantuan
amaikatxu zozo,
mitiñak eragiñez
etxe eta auzo;
barruz ustelak eta
kanpotik nai gozo,
jakin gura badabe
oker dabiltz oso.

Iri.: Txomin Garmendia'rentzat: an, dan, jan,
zan.

24 *Gar.:* Aingerutxo polit bat
nik ikusten det an,
eta jakin nai nuke
ori nungoa dan;
berak ez dakiela
bere biotza jan,
gure tratu egitea
nunbait gaurkoan zan.

GOIZEKO AZKEN AGURRA

Iri.: Gaur goizekoa amaitu, denen izenean Xanpunek agur batez amaituko da. Eta arratsaldean, esan bezela, lau t'erdietan emen izango gaituzue berriro. Sarrerek gorde eta bazkariak on egin.

25 *Xan.:* Goiz huntako saioa
nola zaukun bete,
bazkaltzera guziak
gonbiduz zerate;
ez dezala egin hor
harek zerbeit kalte,
on dizuela deneri,
berritz sarri arte.

ARRATSALDEKO LEEN AGURRA

Iri.: Gisa onetan kantatuko dute lelengo agurra: Azpillaga, Amuriza, Enbeita, Larrañaga, Xanpun, Etxeberria, Gorrotxategi eta Garmendia.

Juraduak, gaur goizeko puntuak eta arratsaldekoak kontuan izango ditu. Goizeko eta arratsaldeko saioak, beraz. Biak metatuko dira, eta punturik geien duen bertsolariak jasoko ditu Euskaltzaindiaren txapela eta abar...

Denoi arratsalde on eta ongi etorri, beraz. Eta orain bai, bertsolariak benetan orain asten dira, naiz-eta juraduak eztituen puntu auek go-goan artuko; lelengo agur auek beintzat. Asi, Azpillaga. Zozketak onelaxe nai izan du-eta.

- 5** *Azp.:* Berdin gabeko bertsozaleak
agurtzen ditut aurrena,
sekula iñon gertatu bada
au gertakizun lerdena;

jakin zazute barrendik pozez
lerturikan naguena,
esan lezake emen arkitzen
dala Euskalerra dena,
gaurko onetan Balda au degu
munduko leku ederrena.

5 *Amu.:* Azpillaga'ren agur ondoren
bigarren dagokit neri,
al dan moduan joango dira
zenbait gezur eta egi;
ainbeste jende emen biltzea
ez al da, jaunak, geiegi?
Geure apurra eskaini nairik
nai dugu lanean segi,
apurra baño geiago bada
zuentzako izan bedi.

5 *Emb.:* Goizean doguz gure zentzunak
al gendun aña beartu,
baña janari onari esker
barrero gara indartu;
ez al da poza euskal jendea
ola eitea alkartu?
Bertsolari ta euskeran partez
gura zaituet eskartu,
baita nik dedan besarkadarik
beroena ere artu.

26 *Lar.:* Berrero ere bota ditzagun
gure barruko almenak,

bat baño geiok izango ditu
txapelan itxaropenak;
bañan onenak jantzi dezala,
lagunak gerade denak,
bildurrik gabe bota ditzagun
sortzen diraden onenak.

2 *Xan.:* Naizen lekuan aurkitzea da
benetan bai zoragarri,
horrenbeste anai-arreba gu
begira egun elkarri;
benetako Euskadi batua
hemen degu gaur lokarri,
Erregek erregalo hoberik
ezin gintuzten ekarri.

27 *Etx.:* Emen gatozti ostera,
saio berri bat astera;
arreba eta anai
entzule diradenai
zerbait adieraztera,
zuen biotza poztera.

28 *Gor.:* Au erantzuna eman duana
gaur Euskalerra osuak,
edertasun au ikusi eta
piztu dira gure suak;
zuek ortikan orru ta txalo
ta guk emendik bertsuak,
ori ta geio merezi baitu
gure euskera gaxuak.

3 *Gar.:* Lau gipuzkoar, iru bizkaitar,
mugaz arunztik bestea,
txapelketa onen azken saioa
orain dijoa astea;
plaza onetan ezta errex
nai dan gisa jolastea,
gutakon bati tokatzen zaio
gaur txapela jaztea,
beste gauzarik ez det eskatzen:
onenak irabaztea.

Iri.: Orixe espero degu, egia esan: onenak
irabazi dezala.

BINAKA
ZORTZIKO TXIKIAN

Iri.: Txapelketaren azkenengo jaialdia orain asten da, eta ofizioetan doa lelengo txanda. Iruna bertso, zortziko txikian. Zozketan, beti egin degun bezela, lлена eta zortzigarrena. Azpillaga eta Garmendia, beraz. Zuen inguruan ez da giro. Au da usaia! Biotako bat izan da, noski.

24 *Azp.:* Bi lagun bildu gera
alkarren onduan,
beti ibiltzen gera
alako moduan;
gizon ederra nago
osasun senduan,
ortikan konturatu
zeñek bota duan.

Gar.: Ondo bazkaldu degu
esan duan trazan,
bazkaldu ondorenak
nei ez dit erasan;

usai onak izaten
dirade baratzan,
onek bota duena
kiatsa're bazan.

Azp.: Onuntz etorri gera
ondo bazkalduta,
Garmendia jaunak au
berak esan du-ta;
nere gorputza ezin
legoke galduta,
kolore onak ditu
baña ustelduta.

Gar.: Ustelduta dagola
daukaten jardiña,
neri iruditzen zait
gaur badala diña;
Azpillaga'i tokatu
ixildu eziña,
obe zenduan onuntz
etorri ez baziña.

Azp.: Gauzak pasatzen dira
gaurko egunian,
ondo mantendu gera
jan ta eranian;
Garmendia'k usaia
du aldamenian,
zaratarekin bota
botatzen danian.

Gar.: Ainbat aitzaki emen
dago alkarrentzat,
bazkalondu onetan
Garmendia'rentzat;
fama txarra, Azpillaga,
daukazu zuretzat,
zeuk pekatu eginda
kulpak besterentzat.

* * *

Iri.: Amuriza eta Gorrotxategi orain. Gaiak
onelaxe dio: Atzo ttunttun, gaur ere ttunttun,
beti ttunttun gaittun gu.

29 *Amu.:* Ttunttunaren otsa da
albotik entzuna,
merezia du beraz
gure erantzuna;
lendik ere bagenun
orren oiartzuna,
kitarra bezela da
gu bion zentzuna.

Gor.: Ttunttun-soñuarekin
belarriak bete,
kontu politagorik
besterik bai ote?
Naiz mundu ontan pasa
larogei bat urte,
ttunttun jaiotzen dana
ttunttun da il arte.

Amu.: Larogei urte eta
zimelak esteak,
pena ematen digu
ori ikusteak;
ttunttunak garelako
ez gaude tristeak,
umorarik den arte
or konpon besteak.

Gor.: Batzuk argitan eta
bestek illunian,
orrelakoxe gaiak
gaurko egunian;
konturatuko gera
denbora junian,
bapo bizi gera gu
geure ttunttunian.

Amu.: Bapo bizitze orrek
badu arriskua,
ala ere gure martxa
ezta ain gaiztua;
zu ttunttuna bazara
eta ni txistua,
laster jarriko dugu
Euskadi piztua.

Gor.: Ttunttuna ta txistua
esan dek aurrena,
belarritarako da
gauzik ederrena;

ori sartua daukat
biotzan barrena,
Euskalerrian degun
doñurik zarrena.

* * *

Iri.: Ondoren Enbeita eta Etxeberria. Gauzak nola diran! Biok saltzeko zaudete. Enbeita asiko da.

15 *Enb.:* Au gauza sakona da
eta ez azala,
mundu guztiak garbi
aditu dezala:
saltzeko gaude biok
piztiak bezala,
euskaldun sendi batek
erosi nazala.

Etx.: Aitzenen gertatu da
saltzera juatia,
gure gizatasuna
ain da arlotia;
ez nuke nai luzaro
salgai egotia,
eta etorri bedi
zein dan tratantia.

Enb.: Auek dira gizonak
egindako gaitzak,

espiritua jan du
aunditasun-zitzak;
alperrik propaganda,
diskurso ta itzak,
animarik ez al du
pobreen bizitzak?

Etx.: Agertuko zaizkigu
zeñek eramanak,
tratuan konpondutzen
izango'ira lanak;
Euskadi serbitzeko
egin giñun amak,
suerte ederra dauka
artzen gaituanak.

Enb.: Jaiotzatikan ditut
zigor eta kate,
neretzako itxia
askatasun-ate;
eramaten banabe
emendik aparte,
enaz lertuko berriz
bertora eldu arte.

Etx.: Saltzen jartzea etzan
nere maitasuna,
aldaera onek dit nei
birez laztasuna;
bañan oroitu zaitez,
erosten nazuna,

Euskadi serbitzeko
sortu nitzaizuna.

* * *

Iri.: Oraingoan Larrañaga eta Xanpun. Zerbait gogorra pasatzen da: i aiz emen lapurra.

30 *Lar.:* Nik aurretikan ere
banuen bildurra,
bañan laster nik eman
biaiot egurra;
nere kartera ederrak
egin du agurra,
laguna uste nin baña
i aiz lapurra.

Xan.: Gizon bat juiatzea
ez duk, ez, oin errez,
beldur nauk ez ote
aizen gaur aldrebës;
lapurrak bê burua
zaindu nai dik berez,
guk deitzen diau: Zozuak
belea ipurdi beltz.

Lar.: Juzgua egitea
daukat nere esku,
batek ikusi zaitu ta
orain zaude estu;
seguru dakit kartera
zuk dezula ostu,

besterik ez du merezi:
esku biak moztu.

Xan.: Ez nabil hemen naski
nere ondu naizik,
ez daukat egin ona
zaindua gaur baizik;
ire buruari i
begira ta itzik,
moztekotan ireak
moztu hor lenbizik.

Lar.: Ortik ondo bizitzen
badezu naiko lan,
ilusio txarra dago
Xanpunen ganbaran;
gaurtik aurrera zera
lapurraren faman,
baño diru askorik
ez dezu eraman.

Xan.: Gure arteko auzi
hoi ez hortan urra,
aspaldi nik banaukan
gauz hunen beldurra;
zuk zuzendu nai dezu
ba zure makurra,
ni inozenta naiz ta
hau dugu lapurra.

BINAKA ESNE-SALTZALLEAREN DOÑUAN

Iri.: Berriz ere parejaka eta ofizioka; baña esne-saltzallearen doñuan... Eta emen esan bear det lelengo puntua ez dala errepikatzen. Esate baterako: «Ai gure antziñako guraso nobliak zituzten legiak...» Ola bearko du. Eta ez: «Ai gure antziñako guraso nobliak, guraso nobliak...» Puntu ori egitera beartzen ditugu bertsolariak, beraz.

Eta betoz Garmendia eta Amuriza. Beti, aurrena esaten dedan izenak asi bear du saioa. Xelebre gertatu zerate benetan: Biok elkarri lapurreta egin zenioten nunbait, eta orain biok kartzelan zaudete. Eta zuen bertso-saioa egoera orretan asiko da... Bina bertso.

31 *Gar.:* Batere lanik gabe
mundun gabiltzela,
ez al da itzela?
Beste batzuk luzitzen
or dijuazela;

guretzako luzitzen
gairikan ez dela,
ta sari bezela izan
genduen kartzela,
oain supritu dezagun
merezi bezela.

Amu.: Batzuek daude kontra,
beste batzuk alde,
ta zergatik galde;
gu ere egin gara
kartzelaren jabe;
ta or sartu gaituzte
kriminalen pare,
baña gu lasai gaude
sufrirentu gabe,
lapurrik aundienak
kanpoan baitaude.

Gar.: Sasoitikan naiz egon
gu oso indarrez,
lana etzan errez,
lanerako gogoa
baigenduen aurrez;
poliziakin gerta
gu ala bearrez,
orain kartzelan gaude
gu erdi negarrez,
amnistia eskatu
zazute meserez.

Amu.: Barrua sano dugu
naiz eri azala,
ta goitik kresala,
nagon lekuan Jaunak
anpara nazala;
propaganda egin zan
lapurreta zala,
Ibañez Freire'k orain
aditu dezala:
iges egingo dugu
grapoeck bezala.

* * *

Iri.: Gorrotxategi eta Enbeita orain. Gorrotxategi, i mitinlaria aiz; eta i, Enbeita, onen mitiña entzutera etorri aizena.

31 *Gor.:* Aizu, entzule maite,
artu zazu nota,
ortako nago-ta:
egitan natorkizu
eta ez gorrota;
beti Euskalerrria
ezin leike lo-ta,
aspalditxotik dago
gaitz txar batek jota,
nik konponduko det au,
zuk botoa bota.

Enb.: Prejuizio denak
bear dira itxi,

muñera iritxi,
ez dira errian-ta
orrenbeste bitxi;
esaten dezu asko,
nai dozuz jaretxi,
baiña egoera ontaz
au nere eritxi:
lider larregi eta
lanerako gitxi.

Gor.: Egia da gaur lider
geiegi dagona,
bada askon sona,
ni're beste entzuten
sarritan egona;
ta aspertu liteke
aurrian dagona,
baño gauza bakana
izate'a gauz ona,
nik itz asko ez det baño
itzeko gizona.

Enb.: Politikan oraindik
gabiltza elbarri,
ta zantzo-egarri;
gauzak bere lekuan
ditzagun ezarri;
astindu nai ditue
mendi eta arri,
eskua eman bear
diogu elkarri,

nai bada askatasuna
errira ekarri.

* * *

Iri.: Etxeberria eta Larrañaga orain. Gaia:
ik, Etxeberria, dirua aurreratu ioan Larrañaga'ri.
Eta Larrañaga'k esandako epean ez dik dirurik
bueltatzen.

31 *Etx.:* Larrañaga, izketan
bear degu mintza,
ori al balitza,
lagunak giñan eta
gaur lagun gabiltza;
eztirazu bete nei
emandako itza.
Zer dezu eskatzeko?
Zer dezu eskeintza?
Edo diru aldetik
gaizki al zabilta?

Lar.: Eman bearra daukat
nik e nere nota,
ez nazu gorrota,
ez pentsa gero ori
ez ditela inporta;
lagun Etxeberria,
ni ez nago lota,
itzik etzazu egin
arren nere kontra.

eziña gertatu zait
krisisa dago-ta.

Etx.: Etxeberria dezu
ain lagun gozua,
ta zure auzua,
orregatik etzazu
gaur moztu pausua;
entzun zaidazu gogoz
zuk nere berttua,
bizitza eramango det
ara berdintsua,
eta luzatuko'izut
pixka bat plazua.

Lar.: Orixe eskatzera
netorren aurrena,
baneukan errena,
baña badakit au're
sufritzen dauena;
gauza orrekin neuk det
lendik naiko pena,
baño ola ez al da
juango gaur dena?
Neuk e ordainduko'izut
al dan azkarrena.

* * *

Iri.: Xanpun eta Azpillaga. Biok bata bestea-
rentzako errege zerate gaurkoz; erregeen eguna.
Egizkiozute elkarri erregaluak.

31 *Xan.:* Errege batentzako
gaur badaukat griña,
uste gabe jina,
gradu hori baita
kezkatzeko diña;
ipar aldetikan
hunara naiz jina,
eskaintzeko badut,
zuk ere berdiña:
botoilla bat pollita
ta han koñak piña.

Azp.: Au ikusita nere
begian malkua,
ona da gaurkua,
lagun bat etorri da
berdin gabekua;
errespetatze'itugu
lege ta Jainkua,
nola Bera daukagun
beti-betikua;
biotza ematen dizut,
ez al da naikua?

Xan.: Batek eskaintzen dio,
bertzeak eskea,
zerbeit ditakea,
bazter guzitan dugu
sua eta kea;
elgar konpontzeko
gauza bat nekea,

guk billatzen dugu-
na ez da merkea,
berritz eskaintzen dautzut
ordainez bakea.

Azp.: Pake-premian dago
benetan mundua,
pakea galdu'a;
nola iritxi lezaken
guretzat sendua?
Lapurdi'n bizi zera,
etzaude galdua,
baiña gaur Donostia'n
libre azaldua,
erdiko muga dago
zuretzat kendua.

BAKARKA GAI BERAREKIN

Iri.: Orain kartzelako gaiak datoz. Ez dakit zergatik duen izena orrela kartzelako gai onek. Azpillaga ez beste danak bijoaz, beraz, kartzelara, espexera.

Lelengo, bi puntu jarriko dizkiogu, eta gero gaia. Puntu batek onelaxe dio:

7 Ni ondo nabil eta
bestek or konpon...

Azp.: Danok badakizute
ori nola dagon;
pasa ditugu ainbeste
egun eta gau on,
Iriondo'k badauka
nik ainbat zorion.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Azp.: Gaur orrela gabiltza
makiña bat bazter;

baña bildu biarra
dadukagu laster,
banaka ibilita
ez daukagu ezer.

Iri.: Orain, Azpillaga, iru bertso, nai duan
doñu eta neurrian, gai oni: Gizona ez da ogiz
bakarrik bizi.

32 *Azp.:* Lana daukagu irauntzarako
eta ogia jateko,
agintzen dauden denak jakinda
ez genduke, ez, kalteko;
kultura edo jakintza degu
zerbait gauza on emateko,
Jaunak gizona egiña dauka
bere jabe izateko.

Bost kontinente ditu munduak,
au aspaldiko grazia;
txiki nintzala eskolatikan
au genduen ikasia;
amerikarrak alde batetik
eta bestetik Rusia,
nun ote dago oiek esaten
diguten demokrazia?

Mundu ontako bost puska oiek
ez dira alkarren urrian,
arma aundiak eginda gaude,
guztiok gaur beldurrian;

Euskalerria ere erabat
jarri nai nuke aurrian,
gizonak libre bizi bear du
bera sortu zan errian.

* * *

Iri.: Eta ondoren Xabier Amuriza etorriko
da. Bi puntu lelengo:

7 Ni ondo nabil eta
besteak or konpon...
Amu.: Orrela ez liteke
mundu au gaur aton;
batzuk pobre, besteak
ainbat milloi txanpon,
orri buelta emateko
premia bazegon.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Amu.: Ala gabilta emen
bazterrikan bazter;
erria libra leike
pakeari esker,
ori ere ikusi
nai genuke laster.

Iri.: Eta orain gaia, iru bertso, nai duan
doñuan eta neurrian libre: gizona ez da ogiz
bakarrik bizi.

33 *Amu.:* Gai orrek badu mamia
baldin ezpanago gor,
ainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz or;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu ontara
obe ez gaitezen sor,
ogiakin justizia
bear dugu derrigor,
au siñisten eztuenik
ba al da emen iñor?

Nik eztakit ogi-puskak
indarrik baduenetz,
baina beste zerbaitekin
bart egin nuen amets;
esperantza zuri daukat
naiz etorkizuna beltz,
ogi utsez bizitzerik
nik ez nezake sinets,
gizon batek ortxe ditu
biotza ta ainbat saiets,
zuek ezetz esan arren
nik esango dut baietz.

Ogia da familian
gauza maitagarria,
baina orrek bearra du
azpian oinarria;
idi-gisa daramagu
buruan buztarria,

askatasuna da ogi
eta gure neurria,
iñoiz garbi irekitzen
bada orren iturria,
betiko berdetuko da
semaforo gorria.

* * *

7 *Iri.:* Ion Enbeita orain. Bi puntuak:

Ni ondo nabil eta
besteak or konpon...

Enb.: Gizon asko orrela
lasai da gaur egon;
ezen ardura gabe
bizi dira iñon,
begira gero erria
ze modutan dagon.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Enb.: Zatitan bete dira
amaikatxo bazter;
bide ortatik ez da
erriantzat ezer,
oraindik bizi gera
euskerari esker.

Iri.: Iru bertsoarako, nai duan doñu eta
neurrian, ori libre duk, gaia: Gizona ez da ogiz
bakarrik bizi.

18 *Enb.:* Askatasuna maite detala
egin naiz jaio ta azi,
baiña etsaiak menpe nagola
daustie siñestarazi;
gizon oieri gaur dautset emen
esatekoa lenbizi:
diruz beteta ogiarekin
bakarrik ez gera bizi.

Zoriontzeko ez da naikoa
diru edo ondasuna,
gizon-biotzak beti bear du
zerbaiten alaitasuna;
bere anaia onartutzeko
benetako maitasuna,
ta dan bezela agertutzeko
egizko askatasuna.

Kontzientzia ixilduteko
ogia ez da trukea,
sakonagoa da biotzean
gizonak daukan eskea;
bizi gura dau anai artean,
erria izan askea,
ta askatasun egizko ontan
osasuna ta bakea.

* * *

Iri.: Orain ondoren Anjel Larrañaga. Lelen-
go, besteai bezela, bi puntu:

7

Ni ondo nabil eta
besteak or konpon...

Lar.: Ori eginda ere ezin
joka leike gizon;
gaitz egindakuan lasai
ezin leike egon,
neretzat orrek ez du
nai ainbat zorion.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Lar.: Alderdi danak ditunik
emen ez da ezer;
ola ibili dira
makiña bat bider,
eskubiaren iritziz
ezkerra da oker.

Iri.: Iru bertso, nai duan doñu eta neurrian:
gizona ez da ogiz bakarrik bizi.

34 *Lar.:* Anai-arreba biotzekoak,
nai nuke adierazi,
nik iritzi bat bialdu nai det
nere barrutik igasi;
neurtutzea're gauza zaila da
egoki edo itxusi,
baiña gizona sekula ez da
ogitik bakarrik bizi.

Egunero da bear deguna
eta gauza egokia,

sarri geiena betetzen baitu
jatorduaren tokia;
beste gauza bat nere kasaka
badaukat erabakia:
orren ondoren ederrak dira
osasuna ta pakia.

Ogia ere lagun ona da,
barruan daukat gordea;
ori bakarrik gutxigi dala
danok dakigu ordea;
beste gauza bat eskatuzeko
oraintxen aukeran gea:
nik itz batean eskatutzen det
gure Euskadi librea.

Iri.: Ondoren Xanpun doa. Beste guztiei
bezela, bi puntu eta gaia:

7

Ni ondo nabil eta
bestek or konpon...

Xan.: Bakotxak bere trenpuan
gaur behar du egon;
beintzat makal aire batek
joa dauka Xanpon,
uste dut ondoko hori
hobeago zaion.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Xan.: Mundua hola zuzen da
Jainkoari esker;

zoin dabila zuzenena
seinale da laster,
ta bide on hartarik gu
ez gaitezen bazter.

Iri.: Iru bertso, doñu eta neurri librean.
Gaia zuretzat, Xanpun: gizona ez da ogiz baka-
rrik bizi.

1 *Xan.:* Jainko maiteak bai mundurako
gorputz bat emana gaitu,
ta harek dauzkan gora-berak
behar ditugu garraitu.
Ez gintezke, ez, aragiaren
hazkuntzaz beti gelditu,
ta gorputzaren naiari ere
beti ezin obeditu,
harek arima bat baduela
behar ginduke orroitu.

Gorputzak eta arimak daukan
bidea behar da bete,
batek ona du eta menturaz
bertzearentzat da kalte.
Bainan mundurat, ez da dudarik,
hortako eman gaituzte;
orroitu ere ez gira hemen
betikotz, eta hau bete:
behar ditugu biak ereman
Jainkoak nai duen arte.

Zer ote dugu gorputz triste bat
ikusiz nola hor naizen,
ta haren zainak lana ematen
nautela egun garraitzen;
Bainan barnean, aitor dautzuet,
bertze zerbait dut senditzen,
ta gorputz hori baino gorago
dela ere iduritzen,
bertzenaz hemen alimale bat
bezala izanen nintzen.

* * *

Iri.: Orain ondoren Etxeberria datorkigu.
Lelengo bi puntu eta gero gaia:

7 Ni ondo nabil eta
besteak or konpon...
Etx.: Zuri erantzun bat eman
nairik emen negon;
zalantzan etzaitezen
luzaruan egon,
nola jokutzen zendun
pentsatuta negon.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Etx.: Garbi itzegiteaz
ez gindezke asper;
egi aundi bat besterik
eztegu esan bêt,

danak bateratuko
al gerade laixter.

Iri.: Iru bertso, nai duan doñuan eta neurrian, gaia auxe: gizona ez da ogiz bakarrik bizi.

13 *Etx.:* Auxen da gai ederra
gure Joxe Marik,
ta nik erantzuteko
baditut komerik;
gizona ezta asetzen
ez badu ogirik,
bañan bizitzarako
ezta oi bakarrik,
ondasun geiago're
baditu Euskadi'k.

Zuen aurrean, jaunak,
nere poztasuna,
ementxe artu nai det
gaurkoz ustrasuna;
ogia bakarra ezta
laguntzen dezuna,
aizeak ere badu
bere osasuna,
ta famelin pakea
oi da indartsuna.

Ogia ona dala
gauza segurua,
bañan badago emen
beti anparua;

aizea eta ura
da garbi burua,
lagun urkoa maita
gauza segurua,
nai dunak irabazi
betiko zerua.

* * *

Iri.: Eta orain ondoren Joxe Luis Gorrotxategi. Lelengo puntua:

7 Ni ondo nabil eta
besteak or konpon...

Gor.: Entzun dezute onek
albotik zer dion;
nik e lenguan bati
ori esan nion,
baño geroztik ez naiz
oso lasai egon.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Gor.: Nik oien aurka emen
ez dadukat ezer;
ori entzunak gaude
amar milla bider,
argatik sortzen da emen
ainbat kontu eder.

Iri.: Iru bertso, gai bati buruz, nai duan
doñu eta neurrian: gizona ez da ogiz bakarrik
bizi.

35 *Gor.:* Iriondo, au da gauza
neri esan didazuna,
langille batzuna degu
guk munduko erresuma;
ogia baita bearrezkua
lortziak estuasuna,
baño gizonak bear du poza,
gañera askatasuna.

Ogi ori irabazten
bota izerdi ederrik,
lana egin ta sarritan
alare alper-alperrik;
gizonak ortik ez du jasotzen
merezi luken eskerrik,
beste geiago bereak ditu
ta ez ogia bakarrik.

Naiz-ta ogiz gizonaren
sabela ederki bete,
lotuta badago orrek
ez baidu balio bate;
beste gauz geio bereak ditu
iraungo badu tente,
ta oien billa saiatuko da
arnasik duan bitarte.

* * *

Iri.: Ondoren, Txomin Garmendia. Bi pun-
tu lelengo:

7

Ni ondo nabil eta
besteak or konpon...

Gar.: Orri erantzun gabe
ezin leike egon;
kontzientzi orrek gaur
eztu egiten on,
gero ikusitzen da
errian zer dagon.

Iri.: Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker...

Gar.: Orren buelta ere
emango det laixter;
zuzen ibilliko'ira asko
ta ni nabil oker,
asko nagusi eta
ni bizi naiz maixter.

Iri.: Txomiñentzat, beste guztientzat bezala,
gai bat: Iru bertso, nai duan doñuan eta neurrian.
Baña gaia auxe: gizona ez da ogiz bakarrik bizi.


3

Gar.: Nere barrengo pentsamentuak
nai ditut adierazita,
aurrekaldean jatortasunez
ainbat jende ikusita;
oraindikan e gure Euskadi
ez dago ain itxusi-ta,
Balda ontara ainbeste jende
egin dezute bixita,
ogiarekin bakarrik gizona
emen ez baita bizi-ta.

Egia da, bai, ogia ere
bearrezkoa degula,
ta gaurko egunez ogian palta
izugarri daukagula;
bañan ainbat euskaldun biltzea
ezpaita auntzan eztula,
iruditzen zait jaialdi onek
iñun parerik ez dula,
Euskalerriko jabetasuna
barrenean daukagula.

Bazekizuten gu giñadela
onuntza etortzekoak,
da bertso berri batzuk zirala
kolpetikan sortzekoak;
gauza geiegi daduzkagu bai
oraindik zuzentzekoak,
billera geio bear luteke
gaurkoaren antzekoak,
guk gerea maite dezagun,
or konpon gañontzekoak.

Iri.: Orain juraduak agintzen digunaren zai gelditzen gera. Esan bezela, Antton Aranburu, Aita Zabala, Alfontxo Irigoyen, Jesus Mari Etxezarreta, Juan San Martin, Juan Mari Lekuona, Mixel Itzaina, Fernando Artola «Bordari», Joxe Mari Aranalde, Abel Muniategi; oiek dira juradukoak. Eta Jose Antonio Arana doñuen neurketa egiten jardun dana.



AMURIZA ETA ENBEITA

Iri.: Juraduaren iritziz eta alfabeto ordenari dagokionez, bi pasatzen dira berriz ere, eta bi oien artean beste saio bat egingo da. Bañan kontuan izan gauza bat: egiten duten saio onetan, egun guztiko puntuazioari, emengoak, oraingoak, berriro erantsiko zaizkiola. Au da: ez dira berriro utsetik asten.

Eta bi bertsolariok auetxek dira: Amuriza Xabier eta Enbeita Ion.

Oraingo saioa zertan izango dan, labur esango dizutet. Lelengo, launa bertso ofizioan eta zortziko txikian. Gero, kartzelako gaia dator. Kartzelako gai orretan, bi puntu, gai bat amarreko aundian iru bertso botatzeko, eta bederatzi puntukoan bertso bat botatzeko beste gai bat.

Gaiak onelaxe dio: «Neri ezurrak austeko nun dek abillidadia?»

Nor asi, bi paper badizkiat emen, *bat* eta *bi* jartzen dutenak. Aukeratu zazute. Amuriza asten da.

24 *Amu.:* Berriz lanean asi
bukatu gaberik,
gorputza badaukat nik
ezurrez beterik;
zure aurrean nago
ollar ta tenterik,
zuk eztuzu ortako
abillidaderik.

Enb.: Zuk neri ez didazu
gaur amodiorik,
eta egin nai zeunke
gauza seriorik;
baña oindik etzera
ortako jaiorik,
ni austeko ez dezu
oindik baliorik.

Amu.: Zure balio ori
al da nire diña?
Emango dizut nik bat
ta zuk artu miña.
Nora arraio zatoz,
ijito ziztriña?
Obe zendun olloa
jaio izan baziña.

Enb.: Berriz ludira ez baaiz
obea sortuko,
nere garaitza ez duk
ondotik kenduko;

asi orduko artu
egik akorduko:
neuk eutsiko ditzudaz
zeuk eutsi orduko.

Amu.: Bakoitzak egin bear
beraren ametsak,
kontrarioak gara
gorri eta beltzak;
bakoitzak emen ditu
beraren defensak,
zuk niri ezurak eta
nik zuri saietsak.

Enb.: Egon zaite, laguna,
gai ortan ziurrik,
ez dizut iñoiz izan
nik zuri bildurrik;
euli bateri ezin
zuk autsi ezurrik,
zarata asko baña
ez dezu intxaurrik.

Amu.: Gabilta akerraren
adarren antzera,
elkar desafioka
aurrera-atzera;
nirekin konpontzeko
jaioa etzera,
agur ta zoaz txakur-
-ezurak biltzera.

Enb.: Alperrik zu biurtzen
nik egin alegin,
zure buru arroa
pixkat jetxi dedin;
etzera konturatzen
eta artzen det min,
egur txarretik ezin
ezpal onik egin.

* * *

Iri.: Berriz ere kartzelako gaia dator. Berraz, nere kartzela-zaiak Ion Enbeita barrura eramango dute. Bi puntu lelengo Xabier Amuriza'rentzako.

7 Biotan nor txapeldun,
ortxe dago koska...

Amu.: Batenbat izango dala
biotzak diosta;
erabakitzea da
sarri asko kostatzen,
laguna bada ez naiz
asiko dioska.

Iri.: Une onetan, lagun,
zer dio biotzak?

Amu.: Artzen nau berotasunak
ta artzen nau otzak;
galtzak lasai baditut,
agiñak zorrotzak,
gizona luzitzeko
auek une motzak.

Iri.: Iru bertso, gai bati buruz eta amarreko aundian. Gaia: aita.

36 *Amu.:* Aita izena kanta bearrak
jarri dit biotza bero,
aukera eder au izango zenik
ez nuen emen espero;
preso nengoen Zamora'n eta
an gelditu ia ero,
joan nintzen ta bertan nengola
aita il zitzaidan gero,
naiago nuke edozer baño
emen bizirik balego.

Aita nuen nik umoretsua,
iñoiz geza ta gazia,
arek agertu zidan bidea
baitzen bertsoz ikasia;
oi, ene aita, nire egunak
ere aurrera doaz ia,
baña zugandik artua baitut
bertsotarako grazia,
nik egingo dut arbola aundi
zuk emandako azia.

Gai au kolpera jarriko zenik
ia ametsa dirudi,
baserri artan izan genduen
ainbat arri eta euri;
zu, aita, ziñen ain on niretzat,
ez gogorra baizik guri,
Euskalerria nola dagoen
orain Donosti'n ageri,

niri jotako txalo guztiak
bidaltzen dizkizut zuri.

Iri.: Azkenengo gaia. Bederatzi puntukoan
bertso bat, Euskalerrriari.

37 *Amu.:* Erreka-bazterrean
ernetzen da altza,
ark bezela guk ere
orriak altza;
Euskalerrri gurea
da gure maatsa,
naiz-ta askatasunez
eztan aberatsa;
au destino latza,
askotan garratza,
gakoa or datza
aldatzeko martxa,
bera muga lotuak,
gora esperantza.

* * *

Iri.: Bi puntu Ion Enbeita'ri ere:

7 Biotan nor txapeldun,
ortxe dago koska...

Enb.: Orregaitik ez gera
gu asiko oska;
bertsoak bota ditut
buru ta biozka,
ematen zaion arek
merezia dauka.

Iri.: Une onetan, lagun,
zer dio biotzak?

Enb.: Bere taupadak dira
bero eta otzak;
ori sentitutzen du
bertsolai bakoitzak,
ik ere kantatu ta
bera sentitu zak.

Iri.: Iru bertso, amarreko aundian. Gaia:
aita.

36 *Enb.:* Itz au batera biurtzen zaigu
maitea eta poztasun,
bion artean igaro dogu
bizitzan ainbat laztasun;
zu izan zera, aita, neretzat
neke-alditan osasun,
nere sorrera, nere indarra,
gaiñera nere maitasun,
biok dakigu, aita, zuk zenbat
neretzat eman daustazun.

Zure laztanak, zure barrea
ta zure zigorrak baita,
danak dituzu biotz barnetik,
alaxe nauzu ni maita;
ta ni zuretzat seme egin naiz
Jaungoikuak ala naita,
poza daroat zure izatea
egizko aitarena baita,
denen aurrean gaur milla esker,
bedeinkatzen zaitut, aita.

Urteak asko ditugu baña
gure adiñen artean,
anai bezela bizi gaitzen
alkar degun bitartean;
zu neretzako guztia ziñan
nere umetza-partean,
orain zuretzat izan nai nuke
ez dakit zenbat urtean,
biok batera bizi izateko
zorion eta pakean.

Iri.: Txapelketa barruan azkenengo bertsoa.
Ion Enbeita, bertso bat, bederatzi puntukoan,
Euskalerrinari.

37 *Enb.:* Euskalduna det nere
izena ta izana,
eta Euskadi nere
Ama laztana;
orain kantuz natortzu,
Ama, zuregana,
biok igaro daigun
une goxo bana;
nik zu zaitut jana,
zuretzat afana,
beti izan detana
gaur be zuri, Ama,
betiko artu nigan
daukadan dana.

Iri.: Berriz ere juraduak minutu batzuk es-
katzen ditu, beingoz erabakitzekeo.

SARIAK ETA AZKEN AGURRA

Iri.: Lelengo, txapelduna eta bigarrenaren sari ematea egingo degu; eta gero beste guztiena, alfabetoaren ordenaz. Sari-emalleak ere, alfabeto-ordenaz daude. Eta irugarrenetik zortzi-rañoko guztiekin, berdin egingo degu.

Epai-mai onetako edo jurado onetako idazkari, Antton Aranburu izan da. Noski, denen firmaz eta bi izenez entregatzen didate papel au; eta txapeldun, Euskalerriko bertsolari-txapelketa onetako txapeldun, Xabier Amuriza degu. Bigarren, Ion Enbeita.

Sariak ordena onetan doaz. Lelengoari, Xabier Amuriza'ri, txapela. Euskaltzaindiko idazkari dan Jose Mari Satrustegi'k jarriko dio. Eta Eusko-Kontseilluaren trofeoa, Jorje Oteiza'k egindako bertsolari-irudi ori, Gotzon Olarte'k emango dio. Juanjo Zearreta, Euskaltzaindiko diruzaiñak, berreun milla pezetako saria.

Bigarren saria, Ion Enbeita. Iparraldetik, Eskualtzaleen Biltzarretik, Mixel Itzaina'k ma-

killa emango dio, eskualdun makila. Eta eun milla pezeta, Juanjo Zearreta'k.

Ondoren, esan dedan bezela, ordena alfabetikoari lotuz emango ditut izen denak.

Ion Azpillaga. Araba'ko Diputazioaren izezez, Julian Unzueta etorri da; Araba'ko Diputazioaren trofeoa, beraz. Eta, onez aparte, berrogei ta amar milla pezeta.

Ondoren, Patxi Etxeberria. Bizkai'ko Diputazioaren trofeoa, Alberto Amorrortu'k. Eta berrogei ta amar milla pezeta.

Txomin Garmendia. Gipuzkoa'ko Diputazioaren trofeoa, Xabier Aizarna'k. Eta berrogei ta amar milla pezeta.

Jose Luis Gorrotxategi. Arrasate'ko Udalaren trofeoa, Jose Antonio Ardanza'k. Eta berrogei ta amar milla pezeta. Arrasate'ko Udalaren trofeoa, zera da: Sebero Altube'ren urteurreneko zillarrezko medalla bat. Eta beste aldetik Euskaltzaindiaren selloa edo lema darama.

Anjel Larrañaga. Donostia'ko Udalaren trofeoa, Jesus Mari Alkain'ek. Eta berrogei ta amar milla pezeta.

Xanpun. Gernika'ko Udalaren trofeoa, Jose Antonio Arana'k. Eta berrogei ta amar milla pezeta.

Onen ondoren badago beste sari bat ere. Bañan sari au bitan banatu da. Doñurik geien erabiltzen duen bertsolarientzako, *Ots-HG*, *IZ* eta *Elkar*'ek emandako disko-sorta bat zegoen; baña bi sari ematen dira. Au da: bat, doñurik

geien erabilli duen bertsolaria; eta bestea, doñu berririk geien erabilli duen bertsolaria.

Doñurik geien erabilli duena, Patxi Etxeberria izan da. Ogei doñu erabilli ditu. Pedro Maria Otaño'ren alabari eskatuko genioke, saria ematera etorri dedin.

Bigarren saria, alegia, doñu berririk geien kantatu duenari dagokion saria, Iñaki Beobide'k berak emango du, eta ori Xabier Amuriza'ri ematen zaio.

Eta orain, saioa amaitu dedin, bertsolariei agur bana eskatuko diegu. Baña aurretik, eta Euskaltzaindiaren izenez, Jose Mari Satrustegi'k, Euskaltzaindiko idazkariak, bukatuko du saioa. Gero bertsoz bukatuko baldin bada ere, antolatzalleen izenez beintzat, berak bukatuko du.

Satrustegi'k: «Jaun-andereok: Bi hitz bakarrrik. Gertakizun hau garrantzi gehiegikoa da, esker ona Euskaltzaindiaren izenean agertu gabe uzteko. Amabi urteren buruan, uste dugu zubi bat jarri dugula, bertsolaritzak goi-goieneko mallan jarraitzeko. Eta aleginduko gera azpi mallatik ere jasotzera. Esker ona lehenik bertsolariei. Berek dira hemen buru ta nausi. Hauek gabe, etzen ezer egingo hemen. Esker ona, hau antolaten arduratu diren guztiei; bai epai-maieko eta bai inguruan ilabete frangoz lanian aritu diren guztiei. Eta esker ona zuei, andere, emakume eta gizon guztiei, Euskalerra osoa zuen baitan eskertzen dugula. Aurrera eta berriz ikus dezagula horrelako gertakizuna, gertu eta hain ongi eratuta. Eskerrik asko.»

9 *Enb.:* Zuen beroa nabari eta
nola bat jarri tristerik?
Egia esan, enuen uste
ainbestera irixterik;
gaur artu detan konfiantza au
ez det nai ola ixterik,
beste gauzarik ez daukat eta
eskerrik asko besterik.

38 *Amu.:* Aizak, i, txapel, zer sentitzen duk
ene eskura eltzean?
Ez aut buruan erabiliko
baizik zintzilik iltzean;
iltzea berriz josia diat
nik dakidan biotzean,
an egongo aiz uda beroan
eta neguko otzean,
bizi naizela biontzat eta
berarentzat ni iltzean.

3 *Azp.:* Amuriza'ri lendik nengoen
buru makurtzen asia,
nola dan bera bertsolai ona
eta gizon ikasia;
bertsolariak egun larria
franko badegu pasia,
baña au ola ikustegatik
arriska leike bizia,
besarkada bat guziori ta
agur Euskadi guzia.

3 *Lar.:* Ditugun danak eman ditugu,
gurea ola jua da,
beste urte baten izango al de
geiago eiteko txanda;
egia esan, ni onen zale
lendik jarria nintzan-da,
orain agurtu nai det emendik
denori esker emanda,
bertso barruan pozik aundiña
neretzat aurten izan da.

1 *Gor.:* Ainbeste urtean txapel aundia
egondu da Gipuzkua'n,
eta Errege-egun onetan
Bizkai'raño bera jua;
uste det oso ondo dagola
gaur jarri duten lekuan,
nere anai bat balitz bezela
maite detanan eskuan;
merezi dek ta, lagun Xabier,
gorde zak urte askuan.

36 *Etx.:* Larri-aldiak pasa zaizkigu
bañan etzan ain erraza,
lagunak eta nik orain artzen
asiak gera arnasa;
gaizki gendukan burua eta
geure bertsuen konpasa,
ez asarretu gure langintza
azaldu bada eskasa,
eskerrik asko, anai-arrebak,
agur eta gabon pasa.

- 1** *Xan.:* Lendabiziko agurtzen ditut
egungo bi txapeldunak,
ez ote du ba zerbeit grazia
eman gaituzten egunak?
Gutxienetik gaur bilarazi
gaitu anai euskaldunak,
eskerrak dener biur detzagun
hemendik gaur zor tugunak
ta egun hunek izan detzala
oraindio biharamunak.
- 3** *Gar.:* Barka zazute, anai-arrebak,
ezpanaiz izandu diña,
bañan nere talentu eskasean
nik egin det alegiña;
merezi dunak txapela jantzi,
oi da nere atsegiña,
ta Euskalerrriak gaur bear luke
pare gabeko jardiña,
ezbear danetan gaur bezelaxe
danok bilduko bagiña.

DOÑUAK

Bertsolariak, bakoitzak bere erara kantatzen dituzte doñuak. Orregatik, txapelketan bein baño geiagotan erabillitako doñua danean, aolan lenen artu zuan bertsolariaren era ezarri degu beti emen solfeoz.

Kristinam

Aitak

80. XI 28

1

The image shows a handwritten musical score for a piece in 2/4 time, marked with a large '1' at the beginning. The score consists of ten staves of music. The first staff begins with a treble clef, a 2/4 time signature, and a key signature of one sharp (F#). The music is written in a simple, rhythmic style, primarily using quarter and eighth notes. The notation includes various rhythmic markings such as 'y' (likely indicating a grace note or a specific articulation) and 'P' (likely indicating a piano dynamic). The piece concludes with a double bar line at the end of the tenth staff.

2

The image shows a handwritten musical score for a piece in 2/4 time, starting with a treble clef and a key signature of one flat (B-flat). The score is written on a single staff and consists of 8 measures of music. The first measure begins with a treble clef, a key signature of one flat, and a 2/4 time signature. The melody is composed of eighth and quarter notes, with some rests. The second measure contains a whole note chord. The third measure contains a whole note chord. The fourth measure contains a whole note chord. The fifth measure contains a whole note chord. The sixth measure contains a whole note chord. The seventh measure contains a whole note chord. The eighth measure contains a whole note chord. Below the first staff, there are two empty staves.

3

The image shows a musical score for three voices, numbered 3. The score is written in 5/8 time and the key of D major (one sharp). It consists of ten staves. The first staff is the vocal line, starting with a treble clef and a key signature of one sharp. The following nine staves are for other voices, likely piano accompaniment, with varying clefs and starting points. The music features a mix of eighth and sixteenth notes, often beamed together, and rests. The piece concludes with a double bar line on the tenth staff.

4

The image shows a handwritten musical score for a piece in 6/8 time. The score begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a time signature of 6/8. The first staff is marked with a large number '4' on the left. The notation consists of a series of rhythmic patterns across ten staves. The first two staves each contain two measures. The third staff contains two measures, with a 'y' marking above the first measure. The fourth staff contains two measures. The fifth staff contains two measures, with a 'y' marking above the first measure. The sixth staff contains two measures. The seventh staff contains two measures. The eighth staff contains two measures. The ninth staff contains two measures. The tenth staff contains two measures. The notation includes eighth notes, quarter notes, and rests, with some notes beamed together. The piece concludes with a double bar line at the end of the tenth staff. Below the tenth staff are two sets of empty five-line staves.

5

The image displays a musical exercise labeled '5'. It is written in a single system with ten staves. The notation is in treble clef, 5/8 time, and has a key signature of one sharp (F#). The music consists of a sequence of eighth and sixteenth notes, often grouped in pairs or fours. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and the time signature '5/8'. The notes in the first staff are: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The second staff continues with: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The third staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The fourth staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The fifth staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The sixth staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The seventh staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The eighth staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The ninth staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The tenth staff: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The exercise is a simple melodic line that repeats the same sequence of notes across all staves.

6

2/4

7


Handwritten musical score for a piece in G major, 2/4 time. The score consists of 11 staves. The first staff is the treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 2/4 time signature. The music is written in a simple, rhythmic style with quarter and eighth notes. The piece concludes with a double bar line and a fermata on the final note of the eighth staff. The remaining three staves are empty.



8

Musical score for a piece in G major, 3/8 time, starting at measure 8. The score consists of nine staves. The first staff is a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. The music features a melodic line with eighth and sixteenth notes, often beamed together. The lower staves contain accompaniment with chords and single notes. The piece concludes with a double bar line at the end of the ninth staff.

9

2/4

10 



11 





















12

Musical score for exercise 12, consisting of ten staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 6/8 time signature. The music is written in a single melodic line. The notation includes quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, often beamed together. There are several slurs and accents throughout the piece. The final staff of the exercise is empty.

13

Handwritten musical score for exercise 13. The score is written on ten staves in treble clef. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is 3/8. The notation consists of quarter notes, eighth notes, and rests. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and the time signature 3/8. The music progresses through ten staves, ending with a double bar line. The final note of the piece is a quarter note with a sharp sign.

14

Musical notation for measure 14, first staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Musical notation for measure 14, second staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Musical notation for measure 14, third staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Musical notation for measure 14, fourth staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Musical notation for measure 14, fifth staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Musical notation for measure 14, sixth staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Musical notation for measure 14, seventh staff. Treble clef, key signature of one sharp (F#), 2/4 time signature. The staff contains four measures of music: quarter notes G4, A4, B4, C5; quarter notes D5, E5, F#5, G5; quarter notes A5, B5, C6, D6; and a half note E6.

Empty musical staff.

Empty musical staff.


Empty musical staff.

15






Musical score for exercise 15, featuring a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 6/8 time signature. The score consists of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and the time signature 6/8. The music is written in a single melodic line with various note values and rests. The eighth staff ends with a double bar line.

16







Musical score for exercise 16, featuring ten staves of music. The score is written in a single system with ten staves. The first staff includes a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The music consists of a sequence of eighth and quarter notes, with some slurs and accents. The notation includes various rhythmic values and articulation marks such as slurs, accents, and fermatas. The piece concludes with a double bar line and a repeat sign.



17



18









19

Musical score for exercise 19, consisting of ten staves of music. The piece is in 6/8 time and has a key signature of one flat (B-flat). The notation includes quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, with various rests and phrasing slurs. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat, and a 6/8 time signature. The music concludes with a double bar line on the final staff.

20

Musical score for a piece in 6/8 time, starting at measure 20. The score consists of ten staves of music. The first staff contains a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 6/8 time signature. The music features a melodic line with eighth and quarter notes, and a bass line with quarter notes. The piece concludes with a double bar line at the end of the tenth staff.

21 





22


Handwritten musical score for a piece numbered 22. The score is written on ten staves. The first staff includes a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The music consists of a sequence of notes, primarily quarter and eighth notes, with some rests. The notation is handwritten and includes various musical symbols such as stems, beams, and dots. The piece concludes with a double bar line on the eighth staff. The remaining two staves are empty.


23


Musical score for exercise 23, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 5/8 time signature. The score consists of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef, a sharp sign, and the number 5 over an 8. The music is written in a single melodic line with various note values, rests, and articulation marks such as slurs and accents. The piece concludes with a double bar line and a fermata over the final note.


24 





















25


Handwritten musical score for exercise 25. The score is written on seven staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 5/8 time signature. The music consists of a series of notes and rests, with some notes marked with a vertical bar line. The second staff continues the melody with a slur over two notes and a fermata. The third staff has a slur over two notes. The fourth staff has a slur over two notes and a sharp sign. The fifth staff has a slur over two notes. The sixth staff has a slur over two notes and a sharp sign. The seventh staff has a slur over two notes and a sharp sign. The score ends with a double bar line and a fermata.


26

Musical score for exercise 26, featuring a treble clef, key signature of one sharp (F#), and a 9/8 time signature. The score consists of eight staves of music, each containing a sequence of notes and rests. The first staff includes a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 9/8 time signature. The notes are primarily quarter and eighth notes, with some rests. The eighth staff ends with a double bar line and a repeat sign.


27 






















28

Musical score for exercise 28, featuring a treble clef, key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat), and 5/8 time signature. The score consists of six systems of two staves each. The notation includes quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, with various rests and phrasing slurs. The piece concludes with a double bar line and a repeat sign.


29

Musical score for exercise 29. The score is written in a treble clef with a key signature of two flats (B-flat and E-flat) and a 6/8 time signature. The music consists of eight staves of notation. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two flats, and a 6/8 time signature. The notation includes eighth and sixteenth notes, rests, and slurs. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns. The third staff features a more complex rhythmic pattern with sixteenth notes. The fourth staff shows a continuation of the melody with eighth notes. The fifth staff has a similar pattern to the fourth. The sixth staff continues the melody with eighth notes. The seventh staff features a more complex rhythmic pattern with sixteenth notes. The eighth staff concludes the exercise with a final note and a double bar line. Below the eighth staff, there are two sets of empty five-line staves.

30








6/8

31











33

Musical score for exercise 33, consisting of ten staves of music. The key signature is one flat (B-flat) and the time signature is 6/8. The notation includes quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, with various stems and beams. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat, and a 6/8 time signature. The music is written in a single melodic line across the ten staves.



36

Handwritten musical score for exercise 36, consisting of ten staves of music. The notation is in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#) and a 2/4 time signature. The music is written in a simple, rhythmic style, primarily using quarter and eighth notes. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two sharps, and a 2/4 time signature. The notation includes various rhythmic values and rests, with some notes marked with accents or slurs. The piece concludes with a final whole note on the tenth staff.



A page of handwritten musical notation consisting of ten staves. The first eight staves contain musical notation, while the last two are empty. The notation includes various note values (quarter, eighth, and sixteenth notes), rests, and bar lines. The first staff begins with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The second staff continues with eighth notes and ends with a quarter rest. The third staff features a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The fourth staff starts with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The fifth staff begins with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The sixth staff starts with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The seventh staff begins with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The eighth staff starts with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The ninth staff begins with a quarter note on the second line, followed by eighth notes, and ends with a quarter rest. The tenth staff is empty.

38

Handwritten musical score for guitar, numbered 38. The score is written on ten staves. The first staff includes a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a time signature of 5/8. The notation consists of rhythmic patterns and chords, with some notes marked with accents and slurs. The piece concludes with a double bar line and a final chord.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aundia*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir*: Periyaren zala-partak. (*Aitua*.)
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*.)
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*.)
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*.)
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*.)
31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*.)
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*.)
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*.)
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*.)
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*.)
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*.)
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*.)
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*.)
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*.)
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965). (*Aitua*.)
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*.)
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*.)
47. *J. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*.)
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*.)
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*.)
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*.)
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*.)
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*.)
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*.)
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*.)
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*.)
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*.)
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*.)
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*.)
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.

- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*.)
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*.)
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapiain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.

127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. Bertsolari-Txapelketa Nagusia (1980-I-6).

OTSING
IZ
ELKAR

AUSPOA
LIBURUTEGIA

